

EUSKAL PRESOKA. Auzitegi Nazionalean apelazio saioa egin zuten atzo

Epaileak gaur erabakiko du Narbarteren kartzelatzeaz

Asteartean espetxeratu zuten, apelazio helegitea aztertu aurretik

Erredakzioa | DONOSTIA

Espainiako Auzitegi Nazionaleko Zigor Arloko Hirugarren Atalak gaur erabakiko du Kepa Narbarte euskal presoak kartzelan jarraituko duen edo ez. Narbarte asteartean atxilotu zuten Ertzaintzak, Bermeon. Baldintzapeko askatasunean zegoen Ruth Alonso Bilboko Espetxe Zaintzako epailearen aginduz, zigorraren hiru laurdenak bete-ta dituela. Fiskalak, baina, apelazio helegitea jarri zuten baldintzapeko askatasunaren kontra. Helegite hori aztertu baino bi egun lehenago atxilotu zuten Narbarte.

Zigor Arloko Hirugarren Atalan saio bat egin zen atzo Narbarteren askatasunaren kontrako apelazio helegitea aztertzeko. Pedro Rubira fiskalak Espetxe Zaintzako epailearen erabakia indargabetzeko eskatu

Abokatuak erreguzko helegitea jarri du, apelazio helegitea aztertu baino lehenago espetxeratu dutelako

zuen. Epaile hori hirugarren gradua ematea ez zegokiola argudiatu zuten fiskalak. Gainera, esan zuten Narbarteren jarrera ez zela ona izan aurretik espetxean izan zenean eta ETako kidea zela. Abokatuak, baina, gogorarazi zion ETako laguntzaile izateagatik zigortu zutela.


Defentsarako eskubidea urratu dela dio abokatuak

Abokatuak Narbarte baldintzapean aske uzteko eskatu zuten. Presoari espetxean ezarri zi-

tzaizkion isunak arinak zirela eta inoiz ez ziotela horregatik kartzela onurarik atzera bota esan zuten abokatuak. Defentsarako eskubidea urratu dela eta prozeduran akatsak izan direla argudiatu zuten.

Bestalde, erreguzko helegitea jarri zuten atzo Auzitegi Nazionaleko Zigor Arloko Atalean. Espediente Auzitegi horretara heldu zenetik eginiko guztia baliogabetzeko eskatu zuten. Auzitegiak Espetxe Zaintzako epailearen erabakia bertan behera utzi eta helegitea aztertu baino lehenago kartzelatu izatea aipatu zuten, besteak beste. Horretaz gain, Prozedura Kriminalen Legearen 504. artikulua baitan kartzelatu zutela eta artikuluko hori ez dagokiola baldintzapeko askatasunari oiroterazi zuten, eta guztia abokatuak jakinaren gainean jarri gabe egin nahi izan zutela.

LAGUAREN



TXEMA FERNANDEZ / EÑAKI AZKUNA

«Gai deserosoak eztabaldatu nahi ez izatea» egotzi diote Azkunari PSE-EEK eta PPK

PPK eta PSE-EEK «koldarke-ria» egotzi zioten atzo Iñaki Azkuna Bilboko alkateari eta bere udal taldeari. PPK eta PSE-EEK Bilboko Sozialista Abertzaleak taldea desegiteko proposamena eraman zuten atzoko osoko bilkura-ra. Baina, gai hori eztabaldatzeaz zela EAJko zinegotzi batzuk osoko bilkura utzi eta gehiengo ez zuela argudiatuta plenoa bertan behera utzi zuten Azkunak. «Gai deserosoak ez eztabaldatu nahi izatea» egotzi zioten PPK eta PSE-EEK. Hamabost egun barru osoko bilera berezia eskatuko dutela esan zuten.

Ezkerraldeko zazpi gazte aurkeztu dira Espainiako Auzitegi Nazionalean

Ezkerraldeko zazpi gazte Espainiako Auzitegi Nazionaleko epailearen aurrean aurkeztu ziren atzo. Alberto Bonilla, Alvaro, Romero, Txema Perez, Jorge Urñeja, Endika Abad, Jon de Miguel eta Hector Franco dira gazteak. Ertzaintzak joan zen urrian saiatu zen gazte horiek atxilotzen. Guztiak aske geratu ziren, baina bik astelehenean itzuli beharko dute deklarazteraz. Bestalde, Espainiako Polizia herenegun Beasainen atxilotu Loizab Olano aske utzi zuten egun berean.

ERREFUXIATUAK

Kanporaketan giza eskubideak bortxatu direla dio Mexikoko Giza Eskubideen Batzordeak

Erredakzioa | DONOSTIA

Mexikoko Giza Eskubideen Batzorde Nazionalak euskal errefuxiatuen kanporaketan giza eskubideak urratzen direla aitortu du. Euskal Herriko Giza Eskubideen Behatokiak jakinarazi duenez, «lehen aldia da Mexikoko erakunde ofizial batek modu horretako aitorza egiten duela». Horren oinarria Euska Herriko Giza Eskubideen Behatokiak 2001ean Mexikora bidalitako txostena da. Behatokiak txosten hori Mexikoko Diputatuen Ganberako Kexa, Gestoria eta Informazio Batzorde helarazi zuten eta erakunde horrek Mexikoko Giza Eskubideen Batzorde Nazionalera. Batzorde horrek emaitzak Behatokiari itzuli zituen.

Mexikoko batzordeak dio sei kasutan urratu direla giza eskubideak, Mikel Izpurua, Josu Goztion Larrea, Jose Angel Otxoa de Eribe, Mikel Arrieta, Leire Martinez eta Jagoba Codoren kanporaketan, alegia.

Lehenengo lau kasuetan batzordeak dio euren atxilotetan eta migrazioaren prozesu administratiboetan «irregulartasunak» izan zirela eta, hortaz, «segurtasun juridikoa, legalitatea eta askatasun pertsonalen giza eskubideak urratu» zirela. Leire Martinez eta Jagoba Codoren kasuetan, berriz, batzordeak dio «irregulartasunak» izan zirela migrazioaren prozesu administratiboan eta, beraz, «legalitatea eta segurtasunaren giza eskubideak urratu» zirela.

Behatokiak bere txostenean dio 1995etik 24 euskal errefuxiatu kanporatu dituela Mexikok. Entregan bitartez Mexikok giza eskubideei dagokienez, bere legeria nahiz nazioartekoa urratzen duela salatu du Behatokiak. Gainera, dio kanporatutako 24 pertsonetatik 17k poliziaren eskuetan torturak jasan izana salatu zutela.

ESPETXE POLITIKA. Bi bokal legearen atzeraeraginaren kontra agertu dira

Legea indarrean jarri aurretik zigortutakoei zigorrak osorik betearaztea babestu du CGPJk

Agentziak | MADRID

Euskal presoek zigorrak gogortzeko lege aurreproiektuari babesa eman zion atzo Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiko (CGPJ) Ikerketa Batzordeak, aldedeko hiru boto eta kontrako bikerin. Batzordeko bost kideak bat etorri ziren txostenaren puntu ia denetan; legearen atzeraeragina izan zen desadostasun bakarra, eta horregatik bozkatu zuten kontra PSOEk proposatutako bi bokalek.

Legea indarrean jarri aurretik epaituei euren zigorrak osorik betearaztea onartu zuten CGPJk. Hilaren 4ko plenoan aztertuko dute berriro, behin betiko testua PPren gobernuari bidaltzeko. «Terrorismo delituekin» lotuta zigorrak 30 urtetik 40ra igotzea «konstituzionala» dela dio txostenak, eta ez dela tratatu bidegabea. Bi aldaketa nagusi proposatzen ditu: «ETAren kontra aktiboki kolaboratzea» presoak bergizarteratzeko baldintzen artean kentzea, eta bal-

dintzapeko askatasuna lortzeko biktimei eman beharreko kalteordainak arintzea, presoek dirurik ez dutenean. Kartzela onurak zigor osoaren arabera aplikatzea ere gaitzesten du.

Jose Maria Michavila Espainiako Justizia ministroa pozik agertu zen. «Aholkuak» aztertzeko prest daudela esan ostetako «kolaborazio aktiboa» beharrezkoa dela adierazi zuten.

Behin-behineko askatasuna mugatzeko lege egitasmoari buruzko txostena, berriz, atzera bota zuten, kontrako hiru botoekin. PSOEk proposatu bokal batek egin txostenak gogor kritikatzeko egitasmoa. Beste ponente bat izendatu zuten atzo, bigarren testu bat egiteko.

Denok batera

Por nuestros derechos:
Paz y libertad

MANIFESTAZIOA

gesto por la paz

Larunbata otsailaren 1a
Bilbao - Plza. Sagrado Corazón > 17:30etan